



2022 AZA. NOV. 10

SARRERA/ENTRADA 644 IRTEERA/SALIDA .....

LEGE BILTZARREKO MAHAIARIA LA MESA DEL PARLAMENTO

Behean sinatzen dugun taldeok honako ERDIBIDEKO ZUZENKETA hau egiten diogu Elkarrekin Podemos-IU taldeak hegoaldeko mugan giza eskubideak urratzeari buruz aurkeztutako legez besteko proposamenari (12\11\02\01\00414 espediente- zenbakia).

Los grupos abajo firmantes presentamos la siguiente ENMIENDA DE TRANSACCIÓN a la proposición no de ley del grupo Elkarrekin Podemos-IU, relativa a la vulneración de los derechos humanos en la frontera sur (número de expediente 12\11\02\01\00414).


ERDIBIDEKO ZUZENKETAENMIENDA DE TRANSACCIÓN


Eusko Legebiltzarrak:

El Parlamento Vasco:

1. Gaitzetsi egiten du joan den ekainaren 24an Melillako mugan heriotzak eragin zituen poliziaren jardun basatia, eta erabateko elkertasuna adierazten die jarduketa horren ondorioz hildako edo zauritutako Saharaz hegoaldeko pertsonen familiei.
2. Espainiako Gobernuari eskatzen dio aktiba ditzala existitzen diren mekanismoak Espainiako lurraldean dauden asilo-eskatzailerei laguntza sanitarioa, juridikoa eta harrera integralerakoa eskaintzeko.
3. Espainiako Gobernuari eskatzen dio berehala has dezala dozenaka pertsona errugaberen heriotza eragin duten gertakariak argitzeko ikerketa independente bat, erantzukizun politikoak eta penalak argitzeko asmoz.
4. Eskatzen du hildakoen gorpuak berreskuratuz, identifikatu eta jatorriko

1. Condena la brutal actuación policial que el pasado 24 de junio provocó el fatal desenlace en la frontera de Melilla y muestra su total solidaridad a las familias de las personas subsaharianas muertas o heridas por dicha actuación.
2. Insta al Gobierno de España a que active los mecanismos existentes para facilitar la asistencia sanitaria, jurídica y de acogida integral a las personas solicitantes de asilo que se encuentren en suelo español.
3. Insta al Gobierno español a abrir inmediatamente una investigación independiente para esclarecer los hechos que han desembocado en la muerte de decenas de personas inocentes, con el objeto de depurar responsabilidades políticas y penales.
4. Exige la recuperación, identificación y repatriación a sus países de origen de





herrialdeetara aberriratzeko, familien nahiak errespetatuz.

5. Bere erabateko gaitzespena adierazten du migrazioaren eta asiloaren arloan Europak eta Espainiak gaur egun dituzten politiken inguruan, mugak militarizatu eta kanpora ateratzen baitituzte, eta eskatzen du migratzaile guztien duintasuna eta giza eskubideen errespetua bermatuko duten legezko bide seguruak ezartzeko.

6. Uste du Europar Batasunak migrazio-politika koherente eta komuna ezarri behar duela, bai eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako asilo- eta babes-politika ere. Era berean, uste du mugetara iristen diren migratzaileen erantzukizun eta kudeaketak komuna, arduratsua eta solidarioa izan behar duela Europar Batasuneko kideen artean.

7. Erakunde eskudunei eskatzen die berrius ditzatela migrazio-arloko akordioak, betiere giza eskubideak errespetatzen direla bermatzeko.

los cuerpos de las personas fallecidas, respetando los deseos de las familias.

5. Manifiesta su más rotundo rechazo a las actuales políticas europeas y españolas en materia de migración y asilo que giran en torno a la militarización y la externalización de las fronteras y exige el establecimiento de vías legales y seguras que garanticen la dignidad y el respeto a los derechos humanos de todas las personas migrantes.

6. Considera que la Unión Europea debe implementar una política migratoria coherente y común y una política de asilo y protección cimentada en el respeto a los derechos humanos. De la misma manera, considera que la responsabilidad y la gestión de las personas migrantes que llegan a las fronteras tiene que ser común, responsable y solidaria entre los miembros de la Unión Europea.

7. Insta a las instituciones competentes a la revisión de los acuerdos en materia migratoria con el fin de asegurar en todo caso el respeto a los derechos humanos.

2022ko azaroaren 10a

10 de noviembre de 2022

ER. H. V.  
[Handwritten signature]

EA - NU  
[Handwritten signature]

